

Luis Mari Mujikaren hilberri txostena (1939-2017)

IZTUETA, Paulo
Idazlea eta Irakaslea

Egun on, Euskaltzaindiaren deira, joan berriak zaizkigun euskaltzaleak omentzera etorri zareten guztioi. Eta, bereziki, Luis Mari gogoratuaren familiari.

Gure poeta 1939ko urriaren 10ean jaio zen, Nafarroarekin mugakide egiten duen Lizartza herrixkan. Azken hatsa, berriz, 2017ko martxoaren 3an eman zuen Donostian, artean 77 urte besterik ez zituelarik.

Uzta oparoa utzita joan zaigu. Sorkuntza-lanetan 35 liburutik gora utzi dizkigu, bost sailetan banatuak: 9 poesian, 2 narrazioan, 9 nobelan, 5 bidaietan, 5 saiakeran eta 5 ikerketan. Bada zerbait. Emankorren poesian eta nobelan gertatu da.

Literaturaren azterketan nabarmendu bazen ere gehienbat, euskal toponimian ere ildo sakonak ireki zituen. Hego Euskal Herriko toponimiaz 18 liburu argitaratu zituen 1980ko hamarkadan eta geroago, 2005ean, beste bat Iparraldekoaz.

Harrotutako sailak eta gaiak asko dira eta zabalak; nire ezagutzak, berriz, mugatuak emaitza orokor horretan nire juzgua izan dezadan. Horregatik, nik ezagutu dudan Luis Mari adiskidearen konpainian txango bat egitera mugatuko naiz.

Luis Mari poeta, bere curriculumean ageri denez, prestakuntzaz eta bokazioz teologoa zen, denbora luzez sakramentuen espiritualitate eukaristikoari oso atxikia. Teologiako Lizentzia Erromako Gregorianum-en burutu eta gero, 1963an, Doktoletzako tesia Salamancan egin zuen, Los sacramentos de la humanidad de Cristo. Perspectiva patristica y teológica sobre los sacramentos izenarekin argitaratu zena (EPSA, 1975). Deustuko Teologiako Unibertsitatean irakasle izan zen (1968). Luis Mari poeta beti egon da adi, oso adi, bere barne-dei mistiko-teologikoari, bere kontraesan handi eta txikien zurrunbiloan kiribilduta. Inoiz Unamuno kezkatiairen irudia ere bururatu izan zait. Luis Mariren sorkuntza handi egiten

duena da, hain zuzen, literatura ez dela harentzat modu artifizialez osatutako hitz-joko metatuen xake-taula bat, barne-bizipenari erantzuten dion hezur-haragizko adierazpide garbi bat baizik. San Joanen “Hitza haragi” egin zen bezalako zer bait.

Poeta bakoitzak ditu bere Olinpoak. Gandiaga esan eta, haren *Elorri* eta Arantzazu datozkigu gogora. Luis Marik ere bazuen, eta badu, bere Olinpo txikia, Arratiako bailaran, Areatzako sakramentinoen komentu xumean finkatua. Ilunbe mendia zen hura, altueran apala, zuhaitz txikiz jantzitako harkaitzegia, Lamindaoko laminen babeslekua. Egunero hura begien aurrean zuela idatzi zuen *Urdin eta Burdin/Azul e Hierro* poema 1965ean. Aurrez *Bide-giroak/Ambientes del Camino* argitaratua zeukan, 1963an, Erroman idatzia. Luis Mari poeta orduan jaio zen euskal letren mundura. Gune eta garai hori oso barneratua zeukan gerora ere, eta handik 38 urtera *Bideko prosak: Araba eta Bizkaia* (2003-13) liburuko pasarte biografiko honetan zizelkatua utzi zuen non, zein txokotan, idatzia zuen berak bide-berritzailetzat hartua zeukan poema-liburu hori:

Areatza ere arrai Urrekoatxa mendiaren magalean: parajearen inmanentzia eta iragangaiztasuna elkartuta jasotzen ditut, behatzen dudanean igurtzi berezia egotziz. Poeta existentzialista eta metafisiko (eta maiz pesimista...) honengan bidea galdera anitzen gune da.

Areatzako sakramentinoen komentuan dastaturiko gogoetek makurragoa egin ninduten sentsazio hauetara. Bertan idatzi nuen *Urdin eta Burdin* nire bigarren poema-liburua, jolastokiko platano, indigaztain eta zumarren pean, eta Bizkaiko paisaiaren sekretuez han jabetu nintzen aski gazterik eta, orobat, -gero esango dudanez-, han eritu zitzaidan arima sentimenduz estetikagatik, psikastenia pairatzeraino, nolabaitean. Inpresio hauek ene bizitzaren -biografia ezkutuaren- zertzelada dira, eta ez dut lotsarik hori aitortzeko.

Gaixotasun estetiko horren ezaugarri ezin argiagoa baino ez dira *Bideko prosak*, bost liburutan emanak. Euskal geografia koloreaniztunari eskaintzen dion kantu zoragarri bat baino ez dira bere osotasunean. Begiek ikusmiran duten oro informazio historikotik harago deskribapen poetiko bihurtzeko gaitasuna duten orrialdeak dira, hizkuntza erraz eta oparo batez idatziak. Ez nuen gaixotasun estetiko horren berri, baina pasarte horrek ez zidan harridurarik sortu, banekielako zein somatizatu zeukan naturarekiko sentiberatasuna.

Ez ikasturte berekoak, baina bai ikaskide izanak gara urte luzez, lehenik Tolosako sakramentinoetan 1950eko hamarkadan (1949-1956) eta hurrengoan (1956-

1958), eta 1964an Areatzan. Mutiko ximela zen nik ezagutu nuenean, zaildua, isila, bere baitan bildua, kalekoa, gaztelaniaz ederki egiten zuena, ez batere kirolari emana, baina bai literatura erruz irensten zuen horietakoa. Euskaltzaletasunaren suharra, berak esatera, ez zetorkion etxetik; nobiziotzan sortu zitzaion, 15 urte zituela. Tolosa hiriaren mendeurrena ospatzen zela eta, beste kultura-ekintzen artean, poesia-lehiaketa bat antolatu zuten 1956an eta lehen saria berak irabazi zuen. Nor izango epaimahaikidetakoa bat, eta Orixe.

Baina modu sistematiko batez bere artikulutxoak eta poesiak argitaratzen hasi Areatzan hasi zen, 57 titulutik gora, hor 1957-1962 epealdiaren barruan aldizkari desberdinetan: ikasle sakramentinoen *Estudiante Sacramentino* eta *Arnas-en*, *Karmel* eta *Olerti-n*, batez ere hauetan, baita *Zeruko Argia* eta *Euzko-Gogoa-n* ere. Azken garaiko gehienak (1980-1990) *Egan-en* eman zituen argitara, berak Gillermo Etxeberriarekin batera kudeatzen zuen aldizkarian.

Areatzan elkarrekin egindako urteetan zehar oso harreman hertsia izan genituen. Michel Quoist-en *Prières* batera itzuli genuen, argitara gabe geratu zena. Literatura-liburuak eta iritziak gurutzatzen genituen, *Urdin eta Burdin/Azul e Hierro* liburuen prozesua barrutik jarraitu nuen. Eta azken liburu horretarako hitzaurrea eskatu zidanean, zama handiegia hartzera nindoala iruditu zitzaidan. Izan ere, niretzat une hartan erabat berria zen egileak zerabilen hizkuntza poetiko hura, erreferentzia bisemikoz eta kosmikoz betea. Haren sinbolismo surrealistan sartzeko zailtasunak izan nituen. Noiz aire existentsialistak noiz bafada surrealistikak, erdi-galdua sentitu nintzen.

Dena den, urrats berritzailetzat daukat Luis Marirena, nahiz guztiek ez bide zuten halakotzat hartu. Baina halako emaitza joria ez zuen hutsetik atera. Ordurako aski irakurriak zituen autore gaztelau batzuk, hauen artean Luis Cernuda, Pedro Salinas, Vicente Aleixandre, Juan Ramón Jiménez, Miguel Hernández, Antonio Machado, Federico García Lorca. Eta, ahaztu gabe, baita Pierre Teilhard de Chardin ere, mundu-ikuskera zientifikotasunez hornitzen ahalegindu zen teologo jesuita. *Urdin eta Burdin* liburuko “Beregantzea” poemaren materiaren eta espirituaren arteko sinbiosia jadanik formulatua dator:

“Jainkoa Materian / Materia Jainkoagan”

Egin lanen aitoren gisa, oso gaztea zela, 26 urte baino ez, euskaltzain urgazle izendatu zuten 1965ean.

Garai horretan gaztelau autore horien eragina hain izan zen erabakigarria Luis Mariaren baitan, euskal poetak -Lizardi bera-, arbuizatzen iritsi zela. Gaztelako paisaiak, hango kolorearen distirak liluratuta bizi zen eta etxeoaz sobera ahaztu zelakoan nago. Gure eztabaidak izaten genituen. Esan nezake gaztaroko bere hizkuntza poetikoa gaztelaniaz pentsatua zela, ez euskaraz, eta bere lehen bi liburu horien gaztelaniazko bertsioa -itzulpena-, aberatsagoa dela euskarazkoa baino.

Poesian errimari eta neurriari eusten zion fermuki. Oso diziplinatua zen horretan. Ez zuen gogoko poesia soziala. Errazkeria zen harentzat. Nik horrela ikusten nuen orduko Luis Mari. Orduan poeta zen. Ez gehiago.

Sakramentinoetan hogeitun urte inguru egin eta gero, 1972an sekularizatzea erabaki ondoren, bizimoduak aldatzearekin batera, haren literatura-sorkuntzan ere beste aro berri batean sartzen gara. Luis Mari, poetaz gainera, zerbait gehiago izateko gaitasuna bazuela erakutsi nahiko du.

Lehenik, eliza-titulua konbalidatu ahal izateko, Parisko Catho-n Filosofia Lizentzia egingo du eta segidan Filosofia eta Letretako Lizentzia lortuko Valentziako unibertsitatean 1973an. Handik hamar urtera, Filologian lortuko du doktoretza *Latina eta erromanikoaren eragina euskarari* izeneko tesiarekin, 1982an argitaratu zena. Bere doktore-tesitik ateratzen duen ondorioetako bat, euskal hiztegiak % 70 latinetik eta hizkuntza erromanikoetatik mailegatua duela da. Datu jakinak.

Bizibide berrian sartuta zegoela eta ni erbestean nengoela, bisita bat egin zidan Azkainera 1974ko udan, asko estimatu nuena. Elkarrekin egon gabe geunden Parisko 1970eko egonaldiaz gero. Solas irekian geundela, bizitzan autonomia ekonomikoa izateak zer-nolako bizi-arnasa ematen zion adierazi zidan. Autoafirmazioaren seinale garbia zen hura. Izan ere, lehen soldatak jasotzen orduan hasi zen, lehenik, Zurriola ikastolan 1972-1973 ikasturtean eta, segidan, Barandiaran lizeoan, hemen 1981. urtera arte, eta bietan irakasle eta zuzendari bezala, euskara batuaren arazoa puri-purian zegoen garaian. Berak egin zuen bere parioa euskara batuaren alde eta hiztegia berritzeari ekin zion. Ordukoa da bere *Diccionario General y Técnico* (1977) hiztegia, batez ere irakaskuntzan zabaldu zena.

Irakaskuntzako azken urteak, 1981-2010 ikasturte bitartekoak, EHUko Irakasle-Eskolan eman zituen katedradun bezala. Garai akademiko horretakoak dira bere emaitzarik umotuenak ere. Bere lanbide profesionalak uzten dizkion txolarreak baliatuz, literatura-sorkuntzari buru-belarri lotuta segituko du. Sariak sarien gain

eroriko ziren: *Hitzak ebakitzean* (1975), Kritika saria; *Aire neurtuak* (1984), Lizardi saria; *Loitzu herrian uda partean* (1992), Txomin Agirre saria; *Hiru egun Larburun* (1996), Txomin Agirre saria; *Nire soneto beroak* (1997), Irun Hiria Poesia saria; *Bidean ihes* (1997), Irun Hiria Nobela saria. Nobela eta poesia sailetan goi-mailako sei sari. Datu adierazgarriena zen hau, ordura arteko markak hausten zituena, epaimahaikide zuhurrentzat oharkabeen pasa zedin.

Baina sari horiek ez ziren aurrelanak egin gabe etorri. Eboluzio baten ondorio dira. Behin berarekin solasean, esan zidan poesiatik nobelara jauzi egiteko asmotan zela. Probatu egin nahi zuela sail horretan zer eman zezakeen eta ari zela zerbait prestatzen. Bazituen bere zalantzak, baina *Loitzu herrian uda partean* aipatuarekin lehen saria jaso zuenean, bere buruan sinesten hasi zen, poesian ez ezik, narrazioan ere bere ekarpena egiteko gauza zela. Berak aitortua da liburu horren atzean Hego Amerikako literaturaren eragina dagoela, zehazki Juan Rulfo eta Gabriel Garcia Marquez-ena. Honen *Crónica de una muerte anunciada*-ren ukitu zuzena sumatzen da Luis Mariren lehen nobela horretan. Oso berea du Hego Amerikako literaturari darion errealismo magikoa. Ez du ezkututzen, bestalde, Migel Delibes ere gogoko duela. Baita Camilo José Cela-ren erruralismo dramatiko ere. Horien guztien ukitua nabaria da bere nobeletan.

Diogunaren lekuko zuzena da *Loitzu* nobela. Bere herria da, Lizartza, eta hautatzen duen gaia gerrate aurreko eta ondoko giro politikoa da, erreketek eta nazionalisten arteko tenkan zehazten dena, non protagonistak herriko jauntxoak baitira: apaiza, alkatea, maisua, medikua. Eta herriko beste pertsonaia xeble batzuk. Ohartzten naiz gerrate-garaiko gai hau errepikatzen den zerbait dela harenean. *Bidean ihes* nobela saritu zenean epaimahaiko izan nintzen eta han egiaztatu ahal izan nuen egileak zerabilen gaia, funtsean, politikoa zela, 1936ko gerrari atxikia, non euskal tropa nazionalisten joana deskribatzen baita Gipuzkoatik Bizkairako atzera egitean. Bietan, teknika bera erabiliz, dena *tempus* jakin baten barruan gertatzen da.

Bistan da bere gairik kuttunetako bat zuela 1936ko gerratea eta zuzeneko informazioa zuela; bere herrikoari dagokionez, berriz, aldez bederen, bere gurasoengandik jaso. Orixeri buruzko lana egiten ari nintzela, bazuela zerbait esateko eta, gurasoengandik jaso jakinarazi zidan: bat, Orixe gerraurrean, Lizartza herria korrika txikian zeharkatzen ikusten omen zutela astelehen batzuetan Tolosako feria-bidean; eta bi, Orixe San Kristobalera atxilo eramane bezperan, herriko eskolan

sartu zutela eta bere amak koltxoia eraman ziola gaua pasatzeko. Salataria Lizartzako emazteki bat omen, herrian oso ezaguna.

Narrazioan erabiltzen duen teknikaz zerbait esan nahi nuke. Narrazioan batez ere, Luis Marik badu pertsonaiak edo egoerak deskribatzeko orduan halako adierazpide tremendista batzuk erabiltzeko joera, antagonismoak areago islatzeko asmoarekin hautatuak, zalantzarik gabe. *Ladix Petrirenekoak* (1998) badu dezente joera horretatik. Ez zait iruditzen Camilo José Cela-rengandik hartua bide duen baliabide hori egoki erabiltzen duenik. Inoiz berari ere adierazi nion. Elkarrizketa batean berak aitortua da inoiz “asto samarra” ere izana dela.

Eta, bukatzeko, esan dezadan azken garaietako Luis Mari poeta, esteta, idazlea, ikertzailea dudala gogoan. Azkenaldian sarritan elkartzen ginen Gros-eko kafetegi batean. Berak deitzen ninduen. Mintzatzen hasi oroz mintzatzen hasten ginen eta geure burutazioak gurutzatzen genituen. Baina -bitxia-, elkarrizketa ia berehala teologia gaietara pasatzen zen. Ohartu nintzen Luis Mari poeta eta idazlearen baitan -eta zolan-, Luis Mari teologoa aurkitzen zela, Vatikanoko II.a kontzilioa baino lehenagoko teologia dogmatikoak erro sakonak utzi zizkiola, eta berrikuntza baten bila zebilela. Eliza ez, eliza-egiturak zituen arrangura-bide. Manuel Olasagastiren *Jainkoaz beste berri batzuk* liburua utzi nionean, hurrengo ikustaldian erabat baretuta ikusi nuen, antzaldatuta, orriak oharrez josita. Jesus Lezaunek liburu horretaz esana errepikatu zidan: “Es una joya preciosa”. Manuel Olasagasti berarekin, berak hainbeste miretsi zuen egilearekin, aurrez aurre egon arteko onik ez zuen izan. Madril ondoan dagoen Rivas Vaciamadrid-en bizi zen bera eta solasaldi luzea izan genuen. Auzo-herri horretatik hiriburura itzultzean, sakramentinoek Sáinz de Baranda kale-hasieran, Retiro parkearen ondoan, duten elizaren aurrean geratu ginen, haren modernotasuna miretsiz. Gure garaiaren egin zen, dena burdinazkoa eta kolorezko beirateriaz osatua, oso garai. Komentura joateko gomita egin nion, behin eta berriz egin ere, baina ez zuen inola nahi izan. Bitxia bere orduko jarrera. Argazki pare egin eta etxera.

Azkenaldion, Luis Mari heldu eta sekularizatuan, Areatzako erlijioso eta jainkotiarra berraurkitu izan dut, aszeta, barnerakoia, komentu-bizitzak utzitako arrasto sakonak astindu ezinik zebilen baten itzala. Haren azken garaietako antsia espiritual hori gogoan, deigarri gertatu zait Stefam Zweig-ek *La lucha contra el demonio* liburuan (2016, 37) Friedrich Höderlin-en gaztaroaz dakarren pasarte hau, zeinetan komentuan bizi izandako urte luzeen ukitu ezabaezina nabarmentzen baita:

“Al cerrarse detrás de él las pesadas puertas del Seminario, su instinto más noble y más íntimo, su fe en la vida, han enfermado prematuramente y están ya medio marchitos antes de que el poeta se bañe en el brillante sol de su primer día libre”.

Bi mende geroago, sakoneko aldaketarik gabe, bere bizitza espiritualaren eta tenporalaren arteko kontrasteak kateatuta bezala sumatu nuen azken garaiko Luis Mari poeta, inoiz baino espiritualago, inoiz baino kezkatiago, gizarte sekularizatuan Jainkoaren zantzu berrien xerka. Berak idatzia da bizitza bidea dela, eta bidea galdera.

Hik egina duk hire bidea, Luis Mari adiskidea, eta hago bakean.